**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

SASIETA
MANKOMUNITATEA

# SASIETA MANKOMUNITATEKO ALBOKO KARGAKO EDUKIONTZIETAN PEDALAK ETA ZENTRATZEKO GIDAK HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

## 1.- XEDEA

Agiri honen xedea da Sasieta mankomunitateko alboko kargako edukiontzietan pedalak eta zentratzeko gidak hornitzeko eta instalatzeko oinarri gisa balioko duten baldintza tekniko batzuk zerrendatzea.

## 2. PEDALAK JARTZEA

Pedalak bide publikoan herritarren zerbitzura dauden errefusa eta biohondakinetarako (organikorako) alboko karga-edukiontzietan instalatuko dira, baita Beasaingo udal-mugartean kokatutako mankomunitatearen lursail batean erreserban dauden edukiontzietan ere. Edukiontziak *Ros Roca* (*Bartzelona* modeloa) fabrikatzailearenak dira eta 2.200 litroko edukiera dute.

Guztira 500 pedal instalatu beharko dira; horietatik 468 bide publikoan zerbitzuan dauden edukiontzietan instalatuko eta 32 erreserban dauden edukiontzietan. Zifrak orientagarriak dira. Bide publikoan instalatutako 468 edukiontziak honela banatzen dira:

| **UDALERRIA** | Alboko karga errefusa 2.200 l. | **Alboko karga organikoa 2.200** |
|---|---|---|
| Altzaga | | |
| Arama | | |
| Ataun | | 7 |
| Beasain | 50 | 49 |
| Ezkio | | |
| Itsaso | | |
| Gabiria | | |
| Gaintza | | |
| Idiazabal | | 9 |
| Itsasondo | | |
| Lazkao | 27 | 26 |
| Legazpi | 31 | 32 |
| Legorreta | | 7 |
| Mutiloa | | |
| Olaberria | | 8 |
| Ordizia | 38 | 39 |
| Ormaiztegi | | 8 |
| Segura | | |
| Urretxu | 29 | 22 |
| Zaldibia | | |
| Zegama | | 12 |
| Zerain | | |
| Zumarraga | 37 | 37 |
| **GUZTIRA** | **212** | **256** |

**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

SASIETA
MANKOMUNITATEA

Azpimarratu behar da edukiontziek gaur egun ez dutela inolako pedalik instalatuta, eta guztiek sarraila elektroniko edo mekaniko bat dutela, zeinak, hurrenez hurren, erabiltzaileak *Mifare* txartelaren edo giltza metalikoaren bidez, erabiltzailearen aldean dagoen estalkia desblokeatzeko. Kontratistak pedalak instalatu ondoren, sarraila horiek martxan jarraituko dute, eta haien funtzionamendua ez da inolaz ere oztopatu edo etengo.

Lizitatzaileek, pedalak instalatzerakoan, kontuan izan beharko dute errefusarako edukiontzietan instalatutako sarraila elektronikoak *Mifare* txartelaren bidez desblokeatzen direla, aldez aurretik ezarritako egutegi batean oinarrituta. Egutegi hori sarrailan bertan grabatuta dago. Egutegi horretatik kanpo ezin da erabiltzaile-estalkia ireki, eta, beraz, ezin izango du probatu instalatzen den pedalaren funtzionamendua, irekitzea baimenduta dagoen egutegiaren egunera arte.

Pedalen instalazioa antolatze aldera, hauxe da Sasieta Mankomunitatean instalatutako errefusarako edukiontzien irekiera-egutegia:

| **ERREFUSA** / RESTO | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Udalerria**<br>Municipio | **Biztanleak**<br>Habitantes | **Irekitze-sistema**<br>Sistema apertura | **Astean irekitzea**<br>Apertura semanal | | | **Irekitze-egutegia**<br>Calendario de apertura |
| Altzaga | 178 | **Irekia**/Abierto | | | **7/7** | L-M-X-J-V-S-D |
| Arama | 202 | **Txartela/Tarjeta** | **1/7** | | | **Igandea**/Domingo |
| Ataun | 1.696 | **Atez ate/**PaP | **1/7** | | | **Astelehena**/Lunes |
| Beasain | 13.938 | **Txartela**/Tarjeta | | **2/7** | | **Astelehena eta ostirala** / Lunes y viernes |
| Ezkio-Itsaso **(1)** | 601 | **Txartela**/Tarjeta | | **2/7** | | **Astelehena eta ostirala** / Lunes y viernes |
| Gabiria | 495 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Astelehena**/Lunes |
| Gaintza | 121 | **Kandadua**/Candado | | **2/7** | | **Astelehena eta osteguna** / Lunes y jueves |
| Idiazabal | 2.293 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Asteazkena**/Miércoles |
| Itsasondo | 668 | **Atez ate/**PaP | **1/7** | | | **Igandea**/Domingo |
| Lazkao | 5.830 | **Txartela**/Tarjeta | | | **7/7** | L-M-X-J-V-S-D |
| Legazpi | 8.321 | **Txartela**/Tarjeta | | | **7/7** | L-M-X-J-V-S-D |
| Legorreta | 1.421 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Astelehena**/Lunes |
| Mutiloa | 255 | **Irekia**/Abierto | | | **7/7** | L-M-X-J-V-S-D |
| Olaberria | 957 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Asteazkena**/Miércoles |
| Ordizia | 10.503 | **Txartela**/Tarjeta | | **2/7** | | **Astelehena eta ostirala** / Lunes y viernes |
| Ormaiztegi | 1.258 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Astelehena**/Lunes |
| Segura | 1.494 | **Atez ate/**PaP | **1/7** | | | **Osteguna**/Jueves |
| Urretxu | 6.782 | **Txartela**/Tarjeta | | **2/7** | | **Astelehena eta ostirala** / Lunes y viernes |
| Zaldibia | 1.637 | **Atez ate/**PaP | **1/7** | | | **Asteazkena**/Miércoles |
| Zegama | 1.524 | **Txartela**/Tarjeta | **1/7** | | | **Asteazkena**/Miércoles |
| Zerain | 270 | **Kandadua**/Candado | **1/7** | | | **Asteazkena**/Miércoles |
| Zumarraga | 9.781 | **Txartela**/Tarjeta | | **2/7** | | **Astelehena eta ostirala** / Lunes y viernes |
| | **70.225** | | | | | |

**(1)** **Itsaso** auzoan, errefusarentzako edukiontzia astean behin (**1/7**) irekitzen da, **astelehenetan**.

**(1)** En el barrio **Itsaso**, el contenedor de fracción resto se abre una vez a la semana (**1/7**), los **lunes**.

**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

Sasieta Mankomunitatean instalatutako biohondakinetarako edukiontzien kasuan, ordea, ez dago erabilera-mugarik egutegiari edo ordutegiari dagokienean.

Pedalak jarraian zerrendatzen diren **ezaugarri tekniko guztiak** beteko ditu:

1. Pedala %100 bateragarria izango da *Bartzelona* ereduko 2.200 litroko *Ros Roca* edukiontziarekin, eta osoa izango da, hau da, pedala bera, estalkia behar bezala irekitzeko mutur pedalean egindako presioa transmititzeko sirgak, beste mekanismo batzuk eta torlojuak barne hartuko ditu.
2. Ezingo dira zulaketak areagotu edukiontziaren upelean. Pedala finkatzeko, fabrikatzaileak diseinatutako zulaketa berberak baliatuko dira.
3. Edukiontzietan instalatutako sarraila elektroniko edo mekanikoak ez kaltetzeko, pedala "*estresaren aurkakoa*" motakoa izango da, hau da, mekanismoak pedalaren gainean egindako presioa xurgatuko du presio hori blokeo-posizioan sarrailari ez transmititzeko eta, horrela, sarraila elektronikoa edo mekanikoa ez kaltetzeko. Babes sistema pedalari eragindako presioa gutxi gorabehera 1.000 newtoneko indarrera iristen denean aktibatuko da. Une horretan, estresaren aurkako mekanismoak bere lana egingo du, hau da, erabiltzaile-estalkira iristen den presioa 62Nw baino handiagoa ez izateko, izan ere, presio horretatik aurrera, sarraila puskatzen hasiko baita.
4. Pedala erregulagarria izango da, eta gutxienez 6 posizio izango ditu edukiontzia kokatuko den ingurura egokitzeko; horietako 3 edukiontzia espaloiaren azpian dagoen egoeretarako izango dira, eta beste 3, edukiontzia espaloiaren gainean dagoen egoeretarako.
5. Erabiltzailearen oinaren euskarria metalezkoa izango da, eta moleteatuz mekanizatuko da, erabiltzaileek pedalari eragiten diotenean irrist egin ez dezaten eta istripurik gerta ez dadin.

Ezaugarri teknikoen multzo hori kontratuaren funtsezko baldintza da, eta, beraz, **ez da onartuko gorago aipatutako ezaugarri guztiak betetzen ez dituen pedalik**.

Pedala, instalatu ondoren, banaka erregulatuko da edukiontziaren kokapen zehatz bakoitzerako, kokapenaren ezaugarri berezien arabera (espaloiaren gaineko edukiontzia, espaloiaren azpiko edukiontzia, espaloiaren zintarriaren altuera, etab.), herritarrentzat irisgarria eta ahalik eta erosoena eta seguruena izan dadin. Era berean, edukiontzia bera lekuz aldatu eta leku egokian jarriko da, lehen aipatutako irisgarritasuna, erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko. Horretarako, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Edukiontzia espaloiaren azpian dagoenean, edukiontzia, dagokion pedalarekin, espaloitik ahalik eta gertuen jarriko da, eta, une oro, erabiltzaile-estalkia erabat ireki ahal izango da, pedalari eraginez, espaloiko zintarria ukitu gabe.
b) Pedala ahalik eta gutxien igoko da, erabiltzaileek, batez ere adinez nagusikoek edo arazo fisikoren bat dutenek, grabitate-zentroa nabarmen aldatu eta oreka gal ez dezaten.
c) Gainera, mankomunitateko zerbitzu teknikoek egoera jakin bakoitzean ezar ditzaketen beste irizpide espezifiko batzuk jarraituko ditu kontratistak.

**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

Pedala instalatu ondoren, mankomunitateko zerbitzu teknikoek gainbegiratuko dute ahalik eta lasterren. Edukiontziaren posizioa eta/edo pedalaren erregulazioa zuzenak ez badira edo alternatiba hoberik badago, kontratistak nahitaez konpondu beharko ditu.

## 2. ZENTRATZEKO GIDAK JARTZEA

Behin pedala jarrita, eta edukiontzia posizio egokian eta pedala erregulatuta, funtsezkoa da edukiontzien ohiko iraulketak edukiontziaren posizioa ez aldatzea. Halakorik gerta ez dadin, kontratistak zoruan zentratzeko gida bat torlojutuko du, eta haren gainean joango da edukiontzia. Zentradorea ezin hobeto egokituko da edukiontziaren upelaren beheko aldean dagoen luzetarako zulora. Arra-eme ahokatze horrek edukiontzia beti posizio berean mantentzera behartuko du.

Zentratzeko gidak instalatuko dira:

1) Bide publikoan instalatuta dauden eta pedal berria izango duten errefusa eta biohondakinetarako edukiontzien azpian.
2) ROS ROCA fabrikatzailearen alboko karga-ontzi arinetarako dentsitate handiko polietilenoz egindako 3.200 litroko edukiontzien azpian (ez dute inolako pedalik). Ontzi arinetarako edukiontziak zentradorea duten beste bi edukiontzien lerrokadura bera izango du (errefusa eta biohondakinetarako edukiontziak)

Bide publikoan zerbitzuan dauden edukiontzietan 574 zentradore berri instalatu beharko direla kalkulatzen da. Zentradoreak honela banatzen dira:

| **UDALERRIA** | Alboko karga errefusa 2.200 l. | Alboiko karga ontziak 3.200 l. | **Alboko karga organikoa 2.200 l.** |
|---|---|---|---|
| Altzaga | | | |
| Arama | | | |
| Ataun | | 9 | 7 |
| Beasain | 50 | 47 | 49 |
| Ezkio | | | |
| Itsaso | | | |
| Gabiria | | | |
| Gaintza | | | |
| Idiazabal | | 9 | 9 |
| Itsasondo | | | |
| Lazkao | | | |
| Legazpi | 31 | 29 | 32 |
| Legorreta | | 8 | 7 |
| Mutiloa | | | |
| Olaberria | | 8 | 8 |
| Ordizia | 38 | | 39 |
| Ormaiztegi | | 9 | 8 |
| Segura | | | |
| Urretxu | 29 | 24 | 22 |
| Zaldibia | | | |
| Zegama | | | |
| Zerain | | | |
| Zumarraga | 37 | 28 | 37 |
| **GUZTIRA** | **185** | **171** | **218** |

**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

**Lazkaon**, eta baita beste udalerri batzuetako kokapen problematiko gutxi batzuetan ere, badira zentradore batzuk instalatuta *ROS ROCA* fabrikatzailearenak. Kasu horietan, kontratistaren betebeharra izango da dagoen zentratzailea torlojutik kentzea eta posizio berrian jartzea. Posizio berria pedalak aginduko du beti.

Era berean, **Zegaman** badira tamaina handiagoko eta metalezko beste zentradore mota batzuk, *TECENTO* fabrikatzailearenak, haize-bolada handiak gertatzen direnean batez ere edukiontzia irauli ez dadin. Kasu horretan, kontratistaren betebeharra izango da dagoen zentratzailea torlojutik kentzea eta posizio berrian jartzea.

Guztira, Lazkaon eta Zegaman dauden 65 zentradore birkokatu beharko dira gehienez.

| | Alboko karga errefusa 2.200 l. | Alboko karga ontziak 3.200 l. | **Alboko karga organikoa 2.200 l.** |
|---|---|---|---|
| Lazkao (Ros Roca) | 27 | Ez da beharrezkoa | 26 |
| Zegama (Tecento) | 0 | Ez da beharrezkoa | 12 |
| **Guztira** | **27** | **0** | **38** |

Laburbilduz, instalatu eta birkokatu beharreko zentradoreak, guztira, 639 unitate dira. Zifrak orientagarriak dira.

| | |
|---|---|
| Guztira zentratzaile berriak | **574** |
| Guztira birkokatu beharreko zertratzaileak | **65** |
| **GUZTIRA** | **639** |

Zentratzaileak jarraian zerrendatzen diren **ezaugarri tekniko** guztiak bilduko ditu:

1) Zentratzaileak 600 mm-ko luzera izango du, 215 eta 220 mm arteko zabalera, eta 110 mm-ko altuera, 200 mm-tik beherakoa. Horri esker, edukiontzia horizontalki mugitu ahal izango da, kalearekiko edo bidearekiko paraleloan, biltzailea errazago hurbildu ahal izateko.
2) Materiala dentsitate handiko polietileno injektatukoa izango da.
3) Barne-egitura nerbio-sare batek indartuko du, erresistentzia areagotzeko.
4) Kolorea ikuspen handikoa izango da, ahal dela horia, RAL 1018.
5) Zentratzailearen pisua ez da 2,30 kg-tik beherakoa izango.
6) Lur gainean torlojuak jarriko zaizkio, 4 torloju erabiliz (D7 x 87 buru hexagonala + arandela, 10 x 80 dagozkion lepoko hurritz muntatu aurremuntatua duten takoekin), haien kokapena behar bezala ziurtatzeko eta edukiontzien posizioan edozein aldaketa errazteko.
7) Torlojuek ez dute gida zulatuko. Azken horrek definituta izango du ostatua zentratzeko gidan.

**3. EPEA**

Lan guztiek 12 asteko gehieneko epean amaituta egon beharko dute.

**SASIETA MANKOMUNITATEA**
Iturralde-txikiko industrialdea, 3-2.sol.
Salbatore auzoa
20.200 Beasain

Tel: 943 16 15 55
Fax: 943 16 06 04
info@sasieta.eus
www.sasieta.eus

## 4. LANAK GAUZATZEA

Kontratistak langile espezializatuak erabiliko ditu lanak egiteko. Kontratu hau garatzeko, zorrotz beteko dira legez aplikatzekoak diren laneko, segurtasuneko eta prebentzioko arau guztiak.

Bilketako ibilgailuak pedalak eta zentradoreak instalatzeko lanak *in situ* egingo ditu, hau da, edukiontziak dauden leku berean, eta uneoro saiatuko da langileen eta ibilgailuen ohiko zirkulazioa ez oztopatzen, behar diren segurtasun-neurriak hartuz, Trafiko Legea uneoro betez eta arau-haustea edo arriskua dakarten maniobrak saihestuz. Kokapenaren ezaugarriengatik *in situ* lan egiterik ez dagoenean, edo segurtasun-arrazoiengatik gomendagarria ez denean, lanaren zati bat, zehazki, pedala jartzea, beste leku seguru batean egin ahal izango da. Kasu horietan, kontratistak beste ordezkapen-edukiontzi bat jarriko du behin-behinean, herritarrei zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko, harik eta behin betiko edukiontzia instalatu arte, dagokion pedal eta zentradorearekin.

Gainera, kontratistak ahalik eta kontu handiena izan beharko du zerbitzua gauzatzean, espaloiak eta galtzadak ez zikintzeko. Behin lana amaituta, instalatzaileek edukiontzien eremua erabat garbituko dute berehala, eta ustekabean, pedalak eta zentradoreak instalatzen diren bitartean erori diren materialak jasoko dituzte. Lanetan erabilitako materialen bilgarriak (kartoia, plastikoa, zumitzak, etab.) mankomunitateak dituen hiru garbiguneetan (Beasain, Ordizia eta Urretxu) entregatuko dira.

## 5. BERMEA

Gutxieneko bermea, pedalak eta zentradoreak erabiltzeko baldintza normaletan, BI (2) uretakoa izango da, kokapenerainoko desplazamendua, eskulana eta materialak barne.

## 6. MANKOMUNITATEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Pedalak eta zentradoreak jaso ondoren, esleipendunak prestakuntza-ikastaro teoriko-praktiko presentzial bat emango die edukiontzien mantentze-lanetako langileei, eta behar adina ordu eskainiko dizkie.

Halaber, Mantentze-eskuliburu bat entregatuko du euskarri digitalean eta paperean, honako hauek jasoko dituena:

- Pedala osatzen duten elementu guztiak eta pedalarekin lotutako edukiontziko beste elementu guztiak zatituta, baita horien planoak eta gainerako informazio grafikoa ere.
- Pedalak eta pieza osagarriak instalatzeko eta mantentzeko prozedura.
- Segurtasunari eta osasunari buruzko informazioa, pedalak instalatzeko eta mantentzeko neurri orokorrak eta espezifikoak hartzen dituena.

## 7. ORDEZKO PIEZAK HORNITZEA

Lehiaketa honen esleipendunak konpromisoa hartuko du eskatzen zaizkion ordezko piezen hornidura gutxienez 10 urtez bermatzeko, pedalak eta zentradoreak formalki jasotzen direnetik zenbatzen hasita.